

**EGEF JARDUNAK, ARABAKO FORU ALDUNDIA. EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGEF 2014-2020
PROGRAMA ERAGILEA**



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Eskualde Ganapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

EP4. Karbono gutxi darabilen ekonomia baterako bidea erraztea sektore guztietan

OE 4.5.1. Hiri mugikortasun jasangarria sustatzea: hiri garraio garbia, garraio kolektiboa, hiri-landa lotura, bide sareko hobekuntzak, bizikleta bidezko garraioa, oinezkoentzako bideak, mugikortasun elektrikoa eta energia garbiez hornitzeko sistemak garatzea

**AFA-04: MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO AZPIEGITURAK: ARABAKO
IBILBIDE BERDEEN SAREA EGOKITU ETA HOBETZEA**

Azalpena:

Jarduna da egokitu eta hobetzea Arabako ibilbide berdeen sarea, bizikleta bidezko garraiorako eta oinezkoentzako azpiegitura multzoa, natura-landa ingurunea errespetatzen duten hurbiltzeko modu guztiak sustatzera, landa eremuak hiri inguruekin lotzera eta garraio modu jasangarriak sustatzera bideratutako estrategia integral baten barruan.

Gauzatzeko egutegia:

2014-2023

Finantza alderdiak:

EGEF laguntzaren zenbatekoa: 1.448.366,00 euro

Arduraduna:

Ingurumen eta Hirigintza Saila- Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua

2014-2020 burutzapenaren adierazleak:

E008 (Bizikletentzako bideen eta bidezidorren luzera): 19,272 km.

2014-2020 aldian eginiko ibilbide berdeak:

Nerbioiko parke lineala – Salvio-Campo Zamora-Olako geralekuko tartearak

Nerbioiko parke linealaren ibilbide berdea Laudion hasi eta Amurrion arte iristen da, 10 km inguruko ibilbidea du, eta haren trazadura Nerbioi ibaiaren ibilguarekiko paralelo doa. Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeen artean mugimendu gehien daukana da, bai txirrindulariak bai oinezkoak kontuan hartuta. Salbio eta Olakoko tren geralekuko tartearak, Campo Zamoratik igarota. EGEFekin batera finantzatu eta 2014-2017 urteen artean egin dira. Tarte horiek 2,81 km luze dira, eta trazadurak 67 m-ko pasabidea dauka Nerbioi ibaiaren ibilgua zeharkatzeko.



Vasco–Navarro trenbide zaharreko ibilbide berdea, Otazu – Gasteiz tartea (Zubigarai)

Vasco–Navarro trenbide zaharreko ibilbide berdea Otazutik Gasteizera luzatu zen, 2015ean. Obra egiten hasi arte, ibilbide berde gaituaren azken zatia Otazuko herrigunean zegoen, Nafarroaranzko mugara doan adarrean, eta oraindik egiteke zegoen Zubigarai etorbiderainoko tartea, Gasteizen. Tarte hori estrategikotzat eta funtsezkotzat jotzen da lurraldea lotzeko, Gasteizekin lotzeko aukera ahalbidetzen baitu.

Lan horrek esku hartze bat eragin du, azpiegitura hori 1,352 metro lineal egokitzeko Otazutik Zubigarairaino; gainera, 106 metro luzeko pasabidea eraiki zen A-2130 errepidea maila desberdinetan gurutzatzeko.



Zadorraren ibilbide berdea egokitzearen 1. fasea, Billoda – Langraiz Oka tartea


Obren lehen fasean egin dena da Zadorraren ibilbide berdea egokitu; hain zuzen ere, eraikuntza proiektuaren 3 sektorea gauzatu da. Sektore hori Billoda eta Langraiz Okaren arteko zubitiki igarotzen da, eta hiru adar ditu Garaboko errotara, Artadiko dorrera eta Almoreta dorrera sartzeko. Haren luzera 4.744 km da guztira.



Vasco-Navarro trenbide zaharreko ibilbide berdea egokitzea Antoñanatik igarotzen den tartean Vasco-Navarro trenbide zaharreko ibilbide berdeari jarraipena emateko Antoñanako lotune tartea egokitu da. Hartara, txirrindulari eta oinezkoek ez dute A-3136 errepidea gurutzatu behar, eta bidea Antoñanarekin lotzen da aulki gurpildunei egokituriko 13 metro luze den pasabide baten bidez. 2016an egokitutako bide tartea 0,9 luze da.

Vasco-Navarro trenbide zaharreko ibilbide berdean Leorza-Zekuiano tunelaren egitura egonkortu eta egokitzeko obrak.

Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdeko tuneletako baten egitura saneatzeko, egonkortzeko eta tinkotzeko obrak, gangan eta horma pikoetan arrakalak agertu direlako, bai eta bizkarrak ere azken horien zati jakin batzuetan. Tinkotzeko, egokitzeko eta egonkortzeko lan horien helburua da igarobideetan erorikoak ez gertatzeko edo materialak ez erortzeko. Zati egokitua 0,336 km-koa da.



Zadorrako Ibilbide Berdea Gasteizko eraztun berdearen eta A-4302 errepidearen artean egokitzeko obren bigarren fasea.

Zadorrako bide berdea ibilbide berde bat da, Zadorra ibaia eta haren harana hari gidari dituen, eta Gasteizko Eraztun Berdearen eta Langraiz Okako herrigunearen artean igarotzen da. Egokitze lanen bigarren fasean egingo dira, Gasteizko Eraztun Berdearen (Aztegieta inguruan) eta A-4302 errepidearen lotunearen arteko zatian, 4,325 km-ko luzeran.

Zadorrako Ibilbide Berdea Gasteizko eraztun berdearen eta Krispiñako araztegiaren artean egokitzeko obrak.

Zadorrako bide berdearen eraikuntza proiektuaren bigarren fasea da, eta Gasteizko Eraztun Berdearen eta Krispiñako araztegiaren arteko zatia egokitzen da, 1,48 km-ko luzerakoa. Zadorrako bide berdea natura, historia eta kultura eta paisaia balio handiko ibilbidea da. Horrez gain, lurraldeko lotura ardatz garrantzitsu bat ere bada, Zadorrako ibai ibilgua duena trazaduraren erreferentzia gisa.

Delikako Ibilbide Berdearen egokitze lanak

Ibilbide berde bat egokituko da bizikletaz eta oinez ibiltzeko, eta Delikako herrigunean hasiko da, ibilbide zirkular bat osatuz. Nerbioiko Parke Linealaren eta haren ibilbide berdearen ingurumen egokitzapenerako lanen jarraipenaren barruan dago obra, eta ibaiaren ibilguaren

goialdeko zatiaren tratamendua da oinarri Delika ibaian gora. Egokitu beharreko trazadura 4,891 km luze da, eta horietatik 3,215 km bizikletaz ibiltzeko modukoak dira. Egin beharreko obrek honako hauek jasotzen dituzte: bidearen plataforma eta zorua egokitzea, drainatzeak eraikitzea, ibilbidea seinaleztatzea, begiratoki bat eta atsedengune bat jartzea trazaduraren puntu estrategikoetan, eta inguruko landaredia hobetzea eta lehengoratzzea.



SHOT ON REDMI 7
AI DUAL CAMERA